

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2018 Foru Dekretua. Onestea dirulaguntza hauetarako deialdia eta bera arautzen duten oinarriak: Tokiko erakundeetako kanpo argiteriaren arloko ekintzetarako dirulaguntzak, Arabako toki erakundeetako gastu arrunta murriztearren eta karbono dioxidoaren isurketak gutxitzen laguntzearren

Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren bitartez ezarri zen finantza iraunkortasun printzipioa, eta hauxe da kontzeptu horren definizioa: defizitaren, zor publikoaren eta merkataritza zorraren berankortasun mugen barnean gaur egungo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasuna, Lege horretan, berankortasunari buruzko araubidean eta Europako araubidean ezarritakoarekin bat eginez.

Modu horretan, diru-laguntza hauen xede nagusia da argiztatzearen arloko eskumena bene-tan egikaritzen duten administrazio publikoek, hau da, udalerrri eta kontzejuek, gastu arruntaren murrizketa lortzea, horrela ekonomia eta finantza jasangarritasunari lagunduz.

Era berean, eraginkortasun energetikoa gehitu nahi da ingurumen iraunkortasunari ekarpenak eginez, kontsumo elektrikoaren murrizketa eraginkorra sortzen den heinean.

Aurreko guztiarengatik eta kontuan hartuta beharrezkoa dela oinarri argi eta zehatzak ezartzea diru-laguntza horiek eskuratzeko eta oinarri horiek objektibotasun, lehia eta publikitatearen printzipioak bermatu behar dituztela, eta, halaber, aplikatuz 11/2016 Legeak, Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntza eta transferentzienak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, ezarritakoa, hona hemen tokian tokiko kanpoko argiteriaren sektorean karbono dioxido emisioak murrizten dituzten ekintzetarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

Era berean, oinarri orokorrak onetsi ondoren deialdi zehatza onetsi behar da. Bertan zehaztuko dira erakunde onuradun posibleak eta diru-laguntza jaso dezaketen ekintzak, zenbatekoak eta banaketa irizpideak.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreakaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreakaren Saileko diru-laguntzei aplikatu beharreko oinarri arautzaile orokorrak onestea, kanpoko argiterian aurrezpenak sortzeko ekintzei buruzkoak.

Aipatutako oinarriak Dekretu honen I. eranskin gisa jaso dira.

Bigarrena. Lehia askeko araubidean diru-laguntzen emakidarako diru-laguntza onestea 1.000.000,00 euroko zenbatekoan. Deialdi hori espedienteari lotuta dago eta Dekretu honen II. eranskina da.

Hirugarrena. Diru-laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018rako "10.2.98 1700 762.90.02 Energia aurrezpena argiteria publikoan," izeneko aurrekontuaren kargura emango dira, 10-265 lerroa.

Laugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821/2017 Erabakiaren bidez onartu zen Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera dagoen III. eranskinaren edukia gehituz.

Bosgarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abuztuaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNÁ SÁENZ

I. ERANSKINA

Kanpoko tokiko argiteria sektorearen ekintzen diru-laguntzak arautzeko oinarriak, tokiko erakundeen korrante gastuak eta karbono dioxido emisioak murrizteko

1. Xedea

Diru-laguntzen programa honen xedea tokiko kanpoko argiteria sektorean honakoak murrizteko jarduketak egitea bultzatzea eta sustatzea da:

- 1) Korrante gastuak, finantza iraunkortasunari laguntzeko aurrezpen garbia hobetuz.
- 2) Karbono dioxido emisioak.

Hori guztia egiteko aurrezpen eta eraginkortasun ekonomiko, finantzario eta energetikoko proiektuak egikaritzeko dira, eta hala, aurrezpen garbia hobetzeko helburuak eta azken energia-aren kontsumoa murrizteko helburuak beteko dira, oinarri hauetan ezarritako baldintzekin bat eginez.

2. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak

Eguzki argiztapen ekipamenduak eta kanpoko argiteria publikoko jarduketak, hasierako egoerarekin alderatuz (agiri bidez justifikatuko dena) korrante gastua eta energia elektrikoa murriztea lortuko dutenak eta Kanpoko Argiteriako Instalakuntzetan Eraginkortasun Energetikoari buruzko Araudiaren xedapenak eta jarraibide tekniko osagarriak (1890/2008) betetzen dituztenak, betetze hori adieraziz.

Instalakuntza berriaren kalifikazio energetikoa A edo B izan beharko da, eta araututako argiztapen, kalitate eta erosotasun bisualeko betekizunak bete beharko ditu.

Argiteriaren argi puntuak eraberritzean LED teknologia erabili behar baldin bada IDAEk eta Espainiako Argiteria Batzordeak (CEI) sortutako «Eskatu beharreko baldintza teknikoak LED teknologiadun argientzat kanpoko argiterian» dokumentuan ezarritakoa bete beharko da; agiri hori IDAEren webgunean argitaratuta dago.

LED argiek gaueko ordutegirako argi murriztailea izango dute.

Administrazio publikoen aurrezpena kalkulatzeko Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 53. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuko da.

Programa hori aplikatzearen ondorioz lortutako energia aurrezpenaren neurketa kalkulatzeko 2012/27/EB Zuzentarauaren V. eranskinean adierazitako kalkulu metodologia erabiliko da.

3. Hautatu daitezkeen inbertsioak eta gastuak eta baldintza osagarriak

1. Hautatzekoak izango dira bakarrik, eta beraz, programaren kargurako finantzazioa jasoko dute, eraginkortasun ekonomikoa, finantzarioa eta energetikoa hobetzeko beharrezkoak diren inbertsioak eta laguntzaren erakunde eskatzaileak edo onuradunak ondasunak edo zerbitzuak eskuratzean egiten direnak, horren alde egindako fakturaren bidez egiaztatu daitezkeenak eta erakunde eskatzailearen eta hornitzaile onuradunaren ordainketa egiaztagiriaren bitartez justifikatu daitezkeenak. Beraz, ez dira hautagarriak izango gastu propioak (langileak, funtzionamendua edo gastu orokorrak). Hautagarria eta finantzagarria izango da jasandako BEZa, berreskuratu eta konpentsatu ezin daitekeenean.

2. Ondorio horietarako hautagarriak izango dira programa honetako helburu ekonomikoak eta energetikoak lortzeko beharrezkoak direnak, eta beste kontzeptu batzuen artean hauek izan ahalko dituztenak: eskumenak dituzten langileek jarduketekin lotutako proiektu teknikoak egitea, obraren zuzendaritza fakultatiboko kostuak, jarduketari lotutako obra zibilaren egikaritze kostuak eta instalakuntzak muntatzeko kostuak, hala badagokio; ekipamenduak materialak eta beharrezko instalakuntza osagarriak. Ez dira barne egongo lizentziak, tasak, zergak edo tributua.

3. Ingeniaritza, obra zibil eta muntatze gastuen guztizko zenbatekoak ezin izango dute argiteria instalatzeko gailuak eta ekipamenduak eskuratzeko aurrekontua gainditu.

4. Diruz lagundu ahal diren gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaera daukatena eta behar-beharrezkoak direnak, eta BEZa.

5. Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak bateragarriak dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein erakunde pribatuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten diru-laguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.

6. Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntzekin eta diru sarrerekin batera, ezin da izan jardueraren kostua baino gehiagokoa.

7. Erakunde onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu behar dituzte, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.

8. Tokiko erakundeak, diru-laguntza hauek jaso ditzaketen onuradun posibleak, jarduketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikulua arabera bideratu beharko dituzte eta bertan jasotako oinarrizko printzipioak beteko dituzte, eta Lege horretan esleitutako eskumenekin eta funtzioekin bat eginez dituzten betebeharrak bete beharko dituzte. Bereziki, diruz lagundutako jarduera betetzeko administrazio kontratuak egiten badira, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 20.2. eta 3. artikulua aplikatuko dira. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean adjudikaziodunak izango duen betebeharrak bat jasoko da: prestazioa ematean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea; hori guztiori, kontratuen legedia betez eta betiere organo eskudunak finkatuta kontratazio mota edo ezaugarri horri halako neurria aplikatu behar zaiola.

4. Baliabide ekonomikoak

Kasuan kasuko deialdiak zehaztuko du oinarri hauen bidez deitutako diru-laguntzak guztira zenbatekoak izango diren eta aurrekontuko zein partidari egotziko zaizkion.

5. Erakunde onuradunak

Erakunde onuradunak izan ahalko dira Arabako Lurraldeko udalerrri eta kontzejuak, argiteria publikoko zerbitzua ematen dutenak.

Ezin dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, IV. tituluan adierazitako arau-hausteren bat dela-eta zehatu diren erakunde edo pertsonak, ez eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, jasotako kasuetan sartuta daudenak ere.

Deialdien aurrekontuaren jatorria kontuan hartuz, diru-laguntza hauek jasotzeko tokiko erakundeak Obra eta Zerbitzuei buruzko Foru Planaren aplikazio eremuaren barne egon beharko dira. Hala ere, ezin izango dira planaren onuradunak izan 2018-19 deialdian jarduketa gauzatu nahi den biztanleria nukleo berarentzat.

6. Emakida prozedura. Eskaerak baloratzeko eta diru-laguntzak emateko irizpideak. Diru laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzen emakida lehia askeko araubidean egingo da.

Diruz lagundu daitekeen gehieneko ehunekoa jardueraren kostuaren arabera kalkulatu da. Jardueraren kostuen barne egongo da diru-laguntza jaso dezakeen aurrekontu jarduera gehi BEZa.

Erakunde onuradunek ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik 10 egun baliodunetan diru-laguntzari idatziz uko egiten ez badiote, ebazpenean ezarritakoa onartu dutela pentsatuko da.

Hornidura agortu ondoren diru-laguntzarik gabe geratzen diren eskaerak poltsa batean sartuko dira puntuazioaren arabera hurrenkeran. Eskatzaile hauek diru-laguntza jasoko dute hasieran banatutako funtsetako batzuk erabiltzen ez badira, hau da, onuradunen batek bere diru-laguntzari uko eginez gero edo behar bezala frogatzen ez badu ezarri bezala erabili duela.

7. Ordainketarako epea eta erakunde onuradunak diru-laguntzaren helburua bete izana justifikatzeko modua

Diru-laguntza bat ordaindu baino lehen, haren xede den jarduera egin dela justifikatu beharko da. Ordainketa egiteko deialdian adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Kasuan kasuko deialdian ezarriko da hura aurkezteko gehieneko epea.

Justifikatu beharreko aurrerapenak egin ahal izango dira, foru araubidean ezarritakoarekin bat eginez.

Justifikazioa honela egingo da:

a) Jarduketak egin izanaren justifikazio memoria, eskarian aurkeztutako partidak eta laguntzaren inbertsioa gauzatzeko hautatutako eta egindako kostuak barne hartzen dituen, egikaritze errealekin alderatuz.

b) Fakturen eta dagozkien bankuaren ordainketa egiaztagiriak.

8. Babesa

Diruz lagundutako jarduerak sortzen dituen argitalpenetan, eskuliburuetan edo publizitatean berariaz aipatu beharko da Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saila. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatuko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidetasunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira.

9. Diru-laguntza itzultzea

Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan itzuli egin beharko dira jasotako diru-laguntzak.

Onartutako diru-laguntza jaso eta gero itzultzen diren diru kopuruak zuzenbide publikoko sarrerak izango dira, eta abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, II. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

Itzulketa eginez gero, Arabako Foru Aldundiak eskumena izango du erakundearen parte-hartzearen zenbatekoa gordetzeko Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean.

Ondoko kasuetan oinarriak ez dira betetzen:

- a) Helburuak frogatu beharra ez betetzea.
- b) Diru-laguntza eskuratzea eskatutako baldintzak bete gabe.
- c) Diru-laguntza helburu baterako eskatu eta horretarako ez erabiltzea.
- d) Erakunde onuradunak ez betetzea diru-laguntza jasotzeagatik jarritako baldintzak.
- e) Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatzea edo galaraztea.
- f) Jarduera gauzatzeko behar den baino diru gehiago jasotzea. Kasu honetan, jardueraren kostuaren gainera eskuratutako soberakina itzuli beharko da, bidezko berandutze interesak gehituta.
- g) Xede bererako beste diru-laguntzaren bat jaso dela ez aitortzea.

10. Egiaztatpena

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko foru diputatuak deialdi honen eta, hala badagokio, oinarri hauen garapenerako bidezkoztat jotzen diren ebazpenak onartuko ditu, diru-laguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta akzioak baliatu ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauek araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako jarduerekin loturik dauden eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

11. Erantzukizunak

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dute programa eta/edo jarduera egitearen erantzukizuna, bai eta hura garatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatzea ere.

12. Aldaketak

Onartutako diru-laguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, diruz lagundutako jardueraren edo jardueren gastu eta diru sarreraren azkeneko likidazioaren emaitza defizitarioa izango da diru-laguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta, kasu guztietan, edozein entitate publiko edo pribaturen gai bererako diru-laguntzak edo laguntzak eskuratzeak emakida ebazpena aldatzea ekarriko du, eta diru-laguntzaren zati bat itzultzea. Behin diru-laguntza onetsitakoan, hura esleitzeko arrazoi izan ziren egitatezko inguruabarrek hura aldatzea eragiten badute, diputatu nagusiordeak eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko diputatuak, diru-laguntzaren onuradunak arrazoituki proposatuta, bere esku izango du diru-laguntza aldatzea dagokion foru aginduaren bidez.

13. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan edozein zalantza sortuz gero, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak ebatziko ditu.

14. Errekurtsoak

Oinarri hauek eta haien ondorioz sortutako administrazio egintza oro aurkaratu ahalko dira, 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta eran (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena).

15. Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren diru-laguntzei buruzkoa; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Legea Orokorra onartzen duena, uztailaren 1ekoa; 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu araubide ekonomikoarena, indarrean dagoen aurrekontu antolamendua; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

16. Indarrean jartzea

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

II. ERANSKINA

Kanpoko tokiko argiteria sektorearen ekintzetan korrante gastuak eta karbono dioxido emisioak murrizteko diru-laguntzak emateko deialdia araubide askean

1. Deialdiaren helburua

Diru-laguntza emango zaie kanpoko argiteriaren alorrean murrizketa eta eraginkortasun ekonomikoa, finantzarioa eta energetikoa lortzeko proiektuen egikaritzeari, aurrezpen garbia hobetzeko ekarpenak egiten dituztenei eta azken energiaren kontsumoa gutxitzen dutenei, oinarri orokorretarako eta deialdi honetarako ezarritako betekizunekin bat eginez.

2. Erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak

Erakunde onuradunak izan ahalko dira Arabako Lurralde Historikoko udalerrri eta kontzejuak eta argiteria publikoko zerbitzua ematen duten udalerrriak.

Edonola ere, 1.500 biztanle baino gutxiagoko eremuentzat eskatu ahal izango da diru-laguntza.

Ezin dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, IV. tituluan adierazitako arau-hausteren bat dela-eta zehatu diren erakunde edo pertsonak, ez eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, jasotako kasuetan sartuta daudenak ere.

3. Diru-laguntzen hornidura eta zenbatekoa

Deialdiko diru-laguntzen programarako gehienezko hornidura 1.000.000,00 eurokoa da, eta Argiteria publikoaren aurrezpen energetikoa, 10.2.98 1700 762.90.02 partidaren kargura izango da, Arabako Foru Aldundiak 2018rako duen aurrekontutik.

Argi puntu bakoitzerako gehienezko aurrekontua 450,00 eurokoa izango da, BEZ barne.

Diru-laguntza jaso dezakeen aurrekontuaren ehuneko 90ak jaso ahal izango du diru-laguntza, biztanleria nukleo bakoitzerako gehienez ere 40.000,00 euroko kopurua egongo delarik.

Diru-laguntza jaso ahal izango duten proiektuek gutxienez hiru baldintza hauetatik bat bete beharko dute:

A) Proiektua ezartzean gutxienez ehuneko 30eko aurrezpen ekonomikoa egotea hasierako egoerarekin alderatuz argiteriako energia elektrikoaren gastuan.

B) Proiektua ezartzean jasota egotea argiteria mailen araubidea, gaueko ordutegi eta errepide mota ezberdinen arabera, bizilagunen beharretara egokituz.

C) Instalakuntzek Eraginkortasun energetikoko araubideak kanpoko argiteria instalakuntzei dagokienez zehazten duena betetzea.

4. Epeak eta eskariak aurkeztea

4.1. Eskariak aurkezteko epea 2018ko irailaren 5ean hasiko da goizeko 09:00etan eta aurrekontu gordailua bukatu arte egongo da irekita, edo horrelakorik gertatzen ez baldin bada azaroaren 30ean, gaueko 23:59ean itxiko da. Aurrekontu gordailua bukatzen baldin bada, webgune honetan argitaratuko da: www.araba.eus.

Eskariak derrigorrez Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan aurkeztu beharko dira eta azterketa tekniko, ekonomiko eta energetikoa ere aurkeztu beharko da. Bertan justifikatu beharko da deialdi honetako lehenengo puntuko baldintzak betetzen direla.

Aplikazioan dokumentazioa eta eskatutako datuak jaso ondoren eta laguntzaren eskaria eginda, aplikazioak eskariaren erregistro eguna eta orduaren ziurtagiria eta esleitutako espediente zenbakia emango ditu eta beraz, une horretatik aurrera, behin betiko eta ondorio guztietarako laguntza eskaria eginda eta erregistratuta geratuko da.

4.2. Eskaerak osorik bete ezean edo oinarri hauetan adierazitako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean falta diren datuak eta agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio adierazitako epean agiri edo datu horiek aurkeztu ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela.

Aurreko oinarrian aurreikusitako ondorioetarako, osatuta ez dauden eskariak ez aurkeztu bezala joko dira eskaria guztiz zuzendu arte.

4.3. Erakunde bakoitzak eskari bakarra aurkeztu ahal izango du, eta eskarian biztanleria nukleo bat baino gehiago multzokatu ahal izango dira.

5. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Diru-laguntza jaso dezakeen kontzepturako eskatutako edo emandako laguntzen ziurtagiria, edo hala badagokio, helburu bererako beste diru-laguntzarik eskatu edo jaso ez izanaren ziurtagiria. Horren barne egongo dira erakunde onuradunak aurretik helburu eta xede bererako jasotako diru-laguntzak, proiektu beraren fase edo alderdi ezberdinak izan arren.

2. Erakunde onuradunak Gizarte Segurantzarekiko kuoten ordainketak eta zerga betebeharrak egunean dituenaren erantzukizunpeko adierazpena.

3. Erakunde eskatzailea diru-laguntza publikoak jasotzeko debekuen barne ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

4. Azterketa teknikoa, ekonomikoa eta energetikoa, deialdi honetan jasotako baldintzak betetzen direla justifikatzen duena.

6. Baliabideak banatzeko eta hainbanatzeko irizpide objektiboak

Laguntzak diru-laguntza eskarien aurkezpen ordenaren arabera esleitu dira, deialdiaren saldoa bukatu arte.

Oinarri arautzaileetan eta deialdi honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko, eskariak honakoek osatutako organo kolegiatuak aztertuko ditu:

- Toki Administrazioaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duena.
- Toki Administrazioaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duena.
- Tokiko administrazioko teknikari letradua.

Batzorde horrek laguntza emateko proposamen txostenak idatziko ditu, eta gastuak baimendu, xedatu eta antolatze gaitutako organoak ebatzi egingo du, eskaera eman ez edo ukatuz, gehienez bost (5) hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Diru-laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie, eskaeran jasotako egoitzan, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legearen 42. artikuluan xedatutako moduen arabera.

Eskatzaileari ez zaio entzunaldi izapiderik aitortuko, eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira kontuan hartuko ebazpenean.

7. Jarduera egikaritzea eta erakunde onuradunaren betebeharrak

Arabako Foru Aldundiak emandako laguntza bakarrik kanpoko argiteria zerbitzua emateko obren edo horniduren kostuak finantzatzeko erabiliko da.

Erakunde onuradunak jasotako diru-laguntzarekin lotura duen argiteria publikoko instalakuntzan edo kudeaketan sortutako gertakariak jakinarazi beharko ditu.

Erakunde onuradunak lortu beharko ditu beharrezko lizentziak edo baimenak.

Aldundiak programa honetan diruz lagundutako jarduketan legezketasuna egiaztatu ahal izango du, eta erakunde onuradunak ahalbidetu egin beharko ditu Aldundiak egin nahi dituen kontrolerako eta ikuskaritzarako jarduera guztiak. Kontrolak gauzatzen direnean Aldundiarentzat eskuragarri egon beharreko agiriak hauek dira:

– Obren eta/edo ekipamenduaren gastu eta ordainketako ziurtagiri jatorrizkoak eta kopia konpultsatuak.

– Inbertsioarekin eta jarduera martxan jartzearekin lotutako bestelako beharrezko agiriak edo aurrekariak.

8. Diru-laguntzen ordainketa eta justifikazioa

Ordainketak izendunak, erakunde onuradun bakoitzarentzakoak, izango dira.

Diru-laguntzen ordainketa guztia erakundeak kontratua edo kontratuaren adjudikazio ebazpena, hala badagokio, eman ondoren egingo da.

Diru-laguntzen justifikazioa justifikatutako kontu sinplifikatua izango da, eta hauek osatuko dute:

1) Amaitutako instalazioaren ziurtagiriaren kopia, Tentsio Baxuko Araubide Elektroteknikoarekin bat eginez instalatzaile baimendunak sinatua eta dagokion Autonomia Erkidegoko erakunde eskumendunean erregistratuta.

2) Proiektuaren edo Diseinuaren Memoria Teknikoaren kopia, tituludun teknikari eskumendunak sinatuta edo instalatzaile baimendunak sinatuta, dagokion instalakuntza kategoriaren arabera, Kanpoko argiteria instalakuntzen eraginkortasun energetikoko araubideko ITC-EA-05 instrukzio teknikoan zehaztutakoaren arabera.

3) Proiektua egin duen teknikari tituludun eskumendunak sinatutako ziurtagiria edo horrelakorik ez baldin badago obra zuzendariak sinatutakoa, edo hala badagokio, egikaritutako jarduketaren diseinuko memoria teknikoa egin duen instalatzaile baimendunak sinatutakoa. Bertan adierazi beharko dira urteko kontsumo energetikoak, jarduketaren aurrekoak eta ondorengoak, eta azken energiaren aurrezpenaren justifikazioa.

4) Kanpoko argiteria instalakuntzen eraginkortasun energetikoko araubideko ITC-EA-01 instrukzio teknikoan zehaztutakoarekin bat eginez, instalakuntzaren etiketa energetikoaren kopia.

5) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan hartzekoduna, gastuen agiria edo ordainagiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data identifikatu behar dira. Fakturak edo agiri baliokide jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak eta 1.000 euro baino gehiagoko gastuen ordainketa ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

6) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreren eta diru-laguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

7) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren soberakinen kasuan; baita horietatik eratorritako interesena ere.

Organo emaileak laginketa tekniken bidez egiaztatuko du gastu eta ordainketa ziurtagirien ehuneko 10, eta hala, ehuneko hori gehitu ahal izango da egiazttagiri biztanle guztietara arte, gertaera esanguratsuak gertatu baldin badira.

9. Diru-laguntza galtzea

Onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako diru-laguntzak, aldez aurretik espediente hasita, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren diru-laguntzei buruzkoak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, ezarritako kasuetan.

10. Proiektua berriz ere idaztea

Erakunde onuradunek, eskatutako argi guztientzako aurrekontu bitartekorik ez baldin badago, proiektua berriz ere idatzi ahal izango dute konpromisoak eta baldintzak eskuragarri dagoen zenbatekora egokitzeko, betiere diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatuz.

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

11. Azken klausula

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia 11/2016 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntzei buruzkoak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

III. ERANSKINA

Diru-laguntza lerroa: Argiteria publikoko diru-laguntzak.

Lehetasun estrategikoa: Inbertsioak berreskuratzea eta lurralde oreka.

Ardatz estrategikoa: 7. Lurralde orekan aurrera egitea.

Helburu estrategikoa: 7.5. Landa azpiegiturak hobetzea.

Saila: Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saila.

Aurrekontu partida: 10.2.98 1700 762.90.02 Aurrezpen energetikoa argiteria publikoan.

2018	2019	2020	GUZTIRA
1.000.000,00	0,00	0,00	1.000.000,00

Diru-laguntzaren xedea:

Kanpoko tokiko argiteria sektoreko ekintzak, Arabako tokiko erakundeen gastu korronea murrizteko eta karbono dioxidoko emisioak murrizteko ekarpenak egiteko.

Onuradunak: Arabako udalak eta kontzejuak.

Emakida prozedura: Lehia askea.

Diru-laguntzaren oinarrizko lerroak:

Diru-laguntza jaso ahal izango duten proiektuek gutxienez hiru baldintza hauetatik bat bete beharko dute:

A) Proiektua ezartzean gutxienez ehuneko 30eko aurrezpen ekonomikoa egotea hasierako egoerarekin alderatuz argiteriako energia elektrikoaren gastuan.

B) Proiektua ezartzean jasota egotea argiteria mailen araubidea, gaueko ordutegi eta erre-pide mota ezberdinen arabera, bizilagunen beharretara egokituz.

C) Instalakuntzek Eraginkortasun energetikoko araubideak kanpoko argiteria instalakuntzei dagokienez zehazten duena betetzea.

Baterako finantzazioa: Ez dago.

Jarraipen erregimena eta adierazleak:

Gaur egungo egoerarekiko gutxienez gastuaren ehuneko 30a murriztea.